

AEK euskaltegiak botako du Sorgin Jaietako txupina

Antolaketa batzordeak Udalak jaiak erditik urrundu nahi dituela salatu du



Karratua Borobila Da proiektuko Aitzol eta Aroarekin solasean /4

Muntteri euskaltegiak botako du aurten Sorgin Jaiei hasiera ematen dion txupina, jai hauek antolatzen dituen batzordeak asteartean prentsaren aurrean jakinarazi zuzenez. Gainera, batetik, Udala festa erditik urruntzeko egiten ari den ahalegina salatu zuen, bestalde, festa gunean eraso sexista edo arrazistarik ez dela onartuko aldarrikatu eta azkenik heldu, haur, zahar eta gazteei gonbidapena luzatu Sorgin Jaietan parte hartu eta goza dezaten: "Aurten ez da erdigunean besterik izango. Udalak bere jarrerarekin lortuko duena zera da eta, herriko jaiak txosna gunean izatea. Gure espazioa txikia izan arren, Lasarte-Oria osoko bihotz askotara iristen gara" esan zuten.

Okendo plaza itxeko Udalak hartu duen erabakia ez du batere egoki ikusi Sorgin Jaiek batzordeak eta gogor salatu du: "obrak noiz hasiko eta orain, hain juxtu jaiak hasi baino 15 egun lehenago." Batzordeko ordezkariaren ustez, "herri honetako jaiak behin eta berriro oztopatzen saiatu dira; erdigunetik eta euskaldun girotik urruntzen; jai parte hartzaile eta beste era bateko eredu baten alde egin beharrean, ikuskizunak bultzatzen; eta hau, jaiak herritik urruntzeko beste adibide bat izan da."

Sorgin Jaiek batzordeak gogor salatu du Udalaren jokabide hori eta 1997ko legearekin lotzen du, "han zehazten zen Udalak duela txosnak non eta zein baldintzatan jarri erabakitzeko eskubidea eta orain ikusi da, ez txosnak bakarrik, erdiguneko giroa ere nahi duen lekura eramanez dezaakeela."



Beraz lege hori aldatzeko eta lege berri bat adosteko eskatzen du Sorgin jaiak batzordeak. Bestalde, Udalarekin adostutako hitzarmen baten berri eman zuten batzordeak, Udalak ez duela bete salatuz. "Beraiek antolatutako ikuskizun batzuk ez oztopatzeko eskatu ziguten, Pirritx eta Porrotxen emanaldia asteazkenean ez jartzeko, konzertu batzuk ere aldatu behar izan ditugu eta aldiz, Udalak ez du hitz bat bera ere bete. Anbulatorio zaharra bota egingo zutela esan ziguten eta ez da bota. Hori ere salatzen dugu. Konpromezuak ez daitezela soilik alde bakarrekoak izan."

Eta bestalde, Sorgin jaiak batzordeak prentsa aurrean aldarrikatu zuten ez dela eraso sexista, arrazista eta homofobi-

korik onartuko eta Bilgune Feministarekin batera prestatutako prebentzio eta erantzun neurrien berri eman zuten. Aurten, emakumeen aurkako edozein erasoren aurrean protokolo bat zehaztu dute.

Berrikuntzak

Batzordeak txosnen gunean izango diren zenbait berrikuntzen berri ere eman zuten, garrantzitsuena gune estali bat jarriko dela: "Eguraldiarekin ezin da inoiz fidatu eta." Ekitaldi txikiagoak egiteko aukera ere emango du. Goitibeheren aurretik egingo den Zabaletara kronoeskaldia, igandean gauean karaokearen ondoren egingo den Altxorraren Bila jokoa eta lehen eguneko Herri Arteko Olinpiadak dira beste berrikuntza batzuk.

Eta azkenik puntako konzertuak eskaintzeko egindako ahalegina nabarmendu zuten Batzordeak, Lasarte-Orian izango diren Mak, Ze esatek, Laketa eta herriko taldeak aipatuz.

Txupina botatzeko AEK aukeratu bada, aurten Korrikak denok kutsatu gaituelako, izan dela esan zuten: "herri bat mugitzeko gai izan dira eta aurten euskararen aire frexkoak kutsaturik urte guztirako indartu eta euskaraz hitzegitera bultzatu gaituzte." Sorgin jaien hizkuntza ere euskaraz izango dela aitortu zuten batzordeak eta egitaraua ere euskaraz banatu dute. AEKko ordezkariak adierazi zuten ohore handia dela eurentzat txupina botatzea eta ikasle guztiei festatan parte hartzeko eskatu zien. •

ALBISTEA /3

Lasarte-Oriako Udalak lokalak laga dizkie zenbait kirol elkarteri

KIROLA /6

Gaizka Ormazabal atleta jubenilen Espainiako txapelketan

KULTURA /8

XVI. Bertsopaper lehiaketako saribanaketa egin zen astelehenean



ERREKATXO JATETXEA

JAUNARTZE ETA BATAIOETAKO MENU BEREZIAK

- Eguneko menua
- Ostiraletako menua 8 euro
- Asteburuko menua enkarguz



Oria Etorbidea 4 • Tel.: 943 365557 • Lasarte-Oria

Neure kabuz



Festak iristear direla eta

Herriko festak aurrean ditugu. Aurten festen hasiera egun bat aurreratu dela irakurri dut Txintxarrin. Nahiz eta festak igandean hasi, larunbatean hainbat jarduera burutuko dira, festako giroa lehenago hasi eta hobeto aprobetxatu arren. Horrelako ekimenak eskertzen dira, Lasarte-Orian lan egiten ez dugun Lasarte-Oriarrentzat bereziki, eta, bide batez, inguruko herrietan bizi diren eta Lasarte-Oriara etorri nahi dutenentzat.

Bestalde, Okendo plaza hesiz inguratu dute aste honetan. Hainbatek pentsatu eta esan duen bezala, "Nola da posible Okendo plazan oraintxe bertan obrak hastea San Pedroko jaiak hemendik gutxira datozela ikusita?" Ulergaitza. Horrekin lotuta, Txintxarriko orri hauetan lehenago astean irakurri nuen Okendo-ko frontoia erabiltzeko aukerarik ez dutela izango aurrean (eta, noski, hurrengo urtetik aurrera) urteroko pala txapelketan. Pena da... Gutun hori irakurtzeak gogora ekarri zizkidan nik bikitan frontoian emandako pilotakadak, bai palaz eta baita eskuz ere... nahiz eta oso iaioa ez izan.

Aste honetan ere, "kimu berdeak" (2009ko martxoaren 15ean "sortu" zuen termino hori Estatu Batuetako Banku Zentraleko gobernadoreak krisitik ateratzen ari garen aztamei buruz hitz egiterakoan) azaltzen hasi ote diren eztabaidaren inguruan, Espainiako Bankuak esan du oso litekeena dela krisiaren unerik gogorrena gainditu izatea, baina oraindik ere langabeziaren gorakadak errekupeazioa kolokan utz dezakeela. Ea San Pedroko festen etorrerarekin krisiaren irteerari hasiera ematen diogun eta zulotik ateratzen garen behingoz!

Beno, besterik ez... San Pedro apostoluak festetarako gogoia eman diezagula guztioi eta festa zoriontsuak igaro ditzauela opa dizuet bihotzez.

Ifiald Erasukdn

Zorion-agurrak



Juan Mari

Zorionak zure aita eta amaren partetik. Beste asko bete ditzazula.



Alazne

Zorionak zure 5.urtebetzean! Zure familiarren partetik.



Saioa

Zorionak eta txokolatezko 4 muxu handi. Guraso, Erica, Maite, Begoña eta Leirerren partetik.



Leire

Zorionak bihotza! Ondo pasa bizilagunaren partetik.



Ivan

Zorionak maitea! Zure 5. urtebetzean eta ondo-ondo pasa! Muxuak arreba eta gurasoen partetik.



Mirari

Gure etxeko pitxitari, zorionak zure laugarren urtebetzean guztion partetik!!



Leire

Zorionak polita! Amona, aitona, ama eta Iñigoren partetik. Zazpi muxu handi.



Eder

Zorionak Eder! 10 muxu handi famuluztiaren partetik.



Natalia

Zoriona Natalia! 4 muxu handi zure urtebetzean! Familiaren partetik.

Guardiak

- Ostirala, 19**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Larunbata, 20**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Igandea, 21**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Astelehena, 22**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Asteartea, 23**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Asteazkena, 24**
Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567
- Osteguna, 25**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 464622
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112

Udala

- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Bakezko epaitegia ... 943371629
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- Zentro Zibikoa ... 943363958
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Pisu bat alokatzen dut Iñigo de Loloia kalean. Harremanetarako telefono zenbakia: 627 995 760.

• Pisu bat salgai Lasarte-Orian, Goikalen. Dena kalera ematen du eta salneurria 33.000.000 pezetakoa da. Tel.: 679 680 465.

Salerosketak

• Opel astra autoa dut salgai. Salneurria 1.000 eurokoa da, Lasarte-Orian. Harremanetarako telefono zenbakia: 600 612 085.

Lan-eskaintzak

• Lasarte-Oriako zentroan pisu bat alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 524.

• Pertsona helduak zaintzeko edo autoen mekaniko bezelan egiteko. Tel.: 648785026

• Etxean bertan bizi lan egiteko edo orduka goizez. Gaeuz ere pertsona helduak zainduko nituzke. Telefonoa: 608098941

• Pertsona helduak zainduz, sukaldeko laguntzaile edo erakuntzan lan egiteko prest. Telefonoa: 620206228

Lan-eskariak

• Sukaldeko laguntzaile, ontziak garbitzen edo pertsona helduak zaintzeko prest. Telefonoa: 630438571

• Estatu Batuetan 20 urtez bizi izan den irakasleak, ingeleseko klaseak emango litzuzke edozein adina eta maila. Telefonoa: 943 362605 Elena.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858 • Geltoki 4 • txintxarri@ttakun.com
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

Oharrak jartzeko asteazken eguerdia baino lehen bidali (iragarki laburretan argitaratzeko astearte eguerdia baino lehen).

Jaiotzak

Julene Odriozola Fernandez, Ekainaren 9an

Heriotzak

M^o Luisa Carcamo Hernando, ekainaren 11n, 66 urte zituela.

GAZTE INFORMAZIOA



www.gipuzkoangazte.info

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

Udaltzain laguntzaileak Errenterriko udalean lan egiteko

Errenterriko udalak deituta, 2009ko Madalenetan Errenterriko Udalean lan egiteko udaltzainen laguntzaileen hautaketa. Bete beharreko baldintzak: 18 urte beteta izatea; langabea izatea; lehentasuna izango dute gutxienez 3 hilabete lehenagotik Errenterrian erroldatuta daudenek. Informazioa Errenterriko udalean, Herriko plaza z/g; tel.: 943 449600; faxa: 943 449650.

Bi hezitzaile Zumaiaiko udal eko ludotekarako

Zumaiaiko udalak deituta, Zumaiaiko udal-ludotekari bi hezitzaile bitarteko funtzionario gisa kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Bete beharreko baldintzak: 16 urte izatea; Eskola Graduatua, Lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokidea eta Astialdiko Begirale-titulua izatea; euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna. Epea ekainaren 25a. Informazioa Zumaiaiko udalean, tel.: 943 865025; www.zumaia.net.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Kirol elkartearen egoitza berria Osasun zentroko eraikuntzan

Udalak lau kirol elkarterekin sinatu du lagapen-hitzarmena

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udalak Beko kaleko Osasun zentro berriko 2. solairuko hainbat lokalen erabilpen hitzarmena sinatu zuen asteartean herriko lau kirol elkarterekin.

Lasarte-Oriako Udalaren izenean, Iñaki Mugika alkateordea eta Jesus M. Zaballos Kiroletako batzorde burua egon ziren sinadura ekitaldian.

Elkartei dagokienez, Jesus Diez Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko lehendakaria, Puy Solano Bruntzaldeko Igeriketa taldeko ordezkaria, Jose Cantos Texas-Lasartearra futbol elkartearen lehendakaria eta Alex Urkiola Bazpi txirrindularitza eskolako lehendakaria egon ziren.

Baldintzak

Jesus M. Zaballosek azaldu zituen hitzarmeneko hainbat xehetasun.

"Herriko elkarteek eskaini genizkien Beko kaleko eraikuntza berriko lokalak eta lau elkarte hauek erantzun zuten deialdira," adierazi zuen Zaballosek.



Udalak Bazpi, Texas-Lasartearra, LOKE eta Bruntzaldeko Igeriketa taldea kirol elkarterekin sinatu zuen hitzarmena.

"Hitzarmenean dioen bezala gizarte egoitza moduan erabiliko dute lokalak, beraz, elkartearen administrazioarekin zer ikusi duten lanak egingo dira bertan," azaldu zuen.

"Lokalen mantentze lana, argi indarra eta ekipamendua, Udalaren esku egongo da, baina garbiketa eta guztia

egoki egotea elkartearen esku egongo da," gaineratu zuen.

Honetaz gain, hitzarmenaren iraupena eta arautzen duten klausulen aldaketa, Lasarte-Oriako Kirol Udal zerbitzuek erabakiko dutela edo beste elkarte batek lokalak eskatzen duenean iraupen hori murriztu daitekeela azpimarratu zuen.

Ordutegia

Era berean, "jendearen sarrera eta irteerak arautzen dituen ordutegia ezarriko dugu. Izan ere, 2. solairu horretan KIUB, Udal Euskaltegia, Jalgune eta kirol elkarteak egongo dira eta bertan ibiliko den jende kopurua handia izango da," aipatu zuen Jesus M. Zaballosek.

Ikasturte amaiera musikala

Udal Musika Eskola eta Dantza Eskolako ikasleek ikasturtean zehar landutakoa erakusteko bi kontzertu eskaini dituzte aste honetan.

Asteartean, Dantza eskolako ikasleek eman zituen hasiera emanaldiari. Iñaki Landak sortutako koreografiak eskaini zituzten dantzariak taula gainean eta arintasuna eta malgutasuna erakutsi zuten.

Ostean, Musika Eskolako txikiak bakarkako edo kamara-emanaldien hasiera izan ziren. Honela, biolinak, pianoa, flauta, txistua edo trikitixaren doinua entzun ahal izan ziren aretoan.

Atzo, bigarren kontzertuan, taldeak ikusteko aukera egon zen eta amaieran, ziklo aldaketako azterketa gainditu dutenen diploma banaketa egon zen.



Mugimenduak duen garrantzia

Asteartean, haur txikientzat mugimenduak duen garrantzia aztertu zuen Pilar Semnariok Manuel Lekuona kultur etxean eskaini zuen hitzaldian.

Gurasoek haurren garapenean duten garrantzia, nolako oinetakoak behar dituzten ibiltzen hasten direnean edo gurasoak egin behra

ez dituzten gauzak ere azaldu zituen hizlariak, baita hitzaldi aretoan zeuden herritarren kezkei erantzuna eman ere.

Hitzaldi hau Udaleko Sanitate departamentuak urtean zehar antolatutako *Nola hezi gure seme-alabak* hitzaldi sortaren baitan dago eta 7 urte arteko haurren gurasoei eta hezitzaileei zuzendua dago.



POLITIKA

Alkarbide bilakatuko da Lasarte-Oriako EA

Lasarte-Oriako afiliatuak ez dira joango Eusko Alkartasunak astebukaeran egingo duen kongresura.

Jexus Izeta, herriko zinegotziak esan digunez, Eusko Alkartasunatik bereizitako kritikoekin bat egin dute. Hori dela eta, kongresura joateak "ez duela zentzurik" azpimarratu du.

Are gehiago, Alkarbide alderdi berria eratzeko pausuak ematen ari direla, eta etorkizunean Lasarte-Oriako udaletxean Alkarbide gisa lan egingo duela zehaztu du.

Alderdi berria urrian edo azaroan eratuko dela espero da, eta, aurrera begira, helburua 2011ko udal hauteskundeetan aurkeztea da.

INGURUMENA

Bigarren Eskuko merkatua bihar

Ola Kaleko azoka-gunean Bigarren Eskuko merkatu egingo da bihar, Lasarte-Oriako Udaleko Merkataritza, Ingurumena, Kontsumoa eta Sanitateko sailak antolatuta.

Liburuak, komikiak, jostailuak, margolanak, arropa, antigoaleko gauzak... hamai-ka gauza erosteko aukera egongo da ibai ondoan jarriko den postuetan.

Merkatua goizeko 10:00etatik 14:00etara egongo da zabalik.

Postuetako saltzaileek, gainera, hondakinak bereizteko poltsa banatuko diete erosketaren bat egiten duten pertsoneri; hain zuzen ere, Udalaren *Birziklatu bai ala bai* kanpainako protagonista izan zena.

Era berean, Lasarte-Oria Bizirik taldeak herritarrak animatu nahi ditu merkatua gerturatu eta bigarren eskuko gauzak erostera.

Horretaz gain, Eusko Legebiltzarrean Hondakin Lege berria sustatzearen aldeko sinadura bilketaren azken eguna izango dela jakin arazten du taldeak.

Beraz, oraindik sinatu ez duzutenok, aukera apartea duzue.

MUSIKA ESKOLA

Gitarra emanaldia

Bihar, larunbata, Musika Eskolako eta Francisco Escudero konterbatorioko ikasleek gitarra emanaldia eskainiko dute Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan 11:00etan.

Kiroletako agenda

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 20

MOSSO MEMORIALA

FINAL AURREKOAK

Michelin edo moduloan

11:00etan, Tragoxka-Ainhoa

12:00etan, Izkiña-ISU Leihokak

ATLETISMOA

Larunbata 20

Egun osoa, Leire Amiano eta Eneritz Imaz LOKEko atletak eta Olatz Flores lasarteoriatarra Euskadiko kadete mailako txapelketan lehiatuko dira, Gasteizen. **Asteburu osoa**, Gaizka Ormazabal LOKEko atleta Espainiako Jubenil mailako txapelketan lehiatuko da, Motrilen.

Igandea 21

10:30ean, Landaberrri-Garaiko-eteako atleta alebinek proba konbinatuaren Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dira, Errenterian.

PILOTA

Larunbata 20

UDABERRI TXAPELKETA

16:00etan, Behar Zana 3-Intza 3, Urnietan.

SANTA ANAKO PALA TXAPELKETA

Astehena 22

18:30ean, Alain Etxebeste eta Iñaki Lizaso-Joan Luis Yeregi eta Juantxo Prieto.

19:15ean, Jon Pagola eta Jesus Ferreira-Axier Goikoetxea eta Aitor Azkonobieta.

20:00etan, Pello Artetxe eta Jon Pello Artetxe-Jose Felix Solano eta Mikel Arroyo.

Asteartea 23

18:30ean, Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardaji-Jon Lizaso eta Txema.

19:15ean, Xabier Garcia eta Eneko Urdanpilleta-Agustin Zubizarreta eta Xabi Eugi.

20:00etan, Beñat Esnaola eta Xabier Arteaga-Xabier Otaegi eta Potzu.

Asteazkena 24

18:30ean, Eneko Iradi eta Ibon Azkonobieta-Benito eta Joseerra.

19:15ean, Carlos Garcia eta Beñat Garcia-Manu Muñoz eta Imanol Muxika.

20:00etan, Axier Iparragirre eta Iñaki Iparragirre-Jon Begiristain eta Mikel Begiristain.

Osteguna 25

18:30ean, Xabier Etxezarreta eta Mikel Bardaji-Patxi Castro eta Iñaki Castro.

19:15ean, Edu Jauregi eta Fran Ariztimuño-Bernaitz Odriozola eta Shanti Martin.

20:00etan, Axier Munduate eta Jon Aristizabal-Alvaro Reyes eta Roberto Felipe.

IGERIKETA

Larunbata 20

10:30ean, Buruntzaldea Igeriketa Taldeko gaztetxoak XX. Lasarte-Oriako Igeriketa Sarian parte hartuko dute, Udal Kirol Igerilekuan.



Gaizka Ormazabal, ezkerretik hasita bigarrena, Motrilen lehiatuko da asteburu honetan Espainiako txapelketan.

Gaizka Ormazabal korrikalaria Espainiako jubenil txapelketan

Lehengo asteburuan, Gipuzkoako Txallengeko 2. jardunaldia burutu zen Tolosako eta Errenteriako kirol guneetan. Bertan LOKEko eta herriko atletak fin ibili ziren, nahiz eta haizearen aurka ere lehiatu behar izan ziren.

Gaizka Ormazabalek 200 metro probako sailkapen lasterketan 3. postua egin arren, 23,34 segundotako marka egin eta asteburu honetan jokatuko den jubenil mailako

Espainiako txapelketarako txartela lortu zuen.

Lurgi Olasagastik ere 100 metro lasterketako sailkapena irabazi zuen 11,97 segundotako denborarekin, baina ezin izan zen finalean lehiatu. Izan ere, jokatu ziren zazpi sailkapen lasterketako sei denboraren onenek lortzen baitzuten finalera iristea.

Aipatzeko ere, Eneritz Imazek eta Leire Amianok lortutako postuak. LOKEko bi

neskatoak kadete mailan lehiatzen dira normalean eta oraingoan senior eta jubenilekin lehiatu ziren. Eneritzek 2. postua egin zuen 100 metroetako sailkapen lasterketan eta Leire Amianok pertika proban 4. postua eskuratu zuen

Bestalde, Iñigo Sevillano Real Sociedad taldeko lasarteoriatarrek 110 metro hesiak proban denboraldiko marka egin zuen 15,12 segundoko denborarekin. •

Texas Lasartearra futbol elkartearen jokalaririk

2009-2010 denboraldia prestatzen hasi da Texas Lasartearra futbol elkartearen taldeak osatzeko edo eratzeko asmoarekin deialdia egin nahi die Lasarte-Oriako gazteei.

Kadeteentzat deialdia, hau da, 1994 eta 1995ean jaiotako mutilentzat ekainaren 22 eta 24 da 18:45ean; Jubenilak, 1991 eta 1993 urte bitartean jaiotakoak, gaur eta ekainaren 22 eta 24an dute hitzordua 18:45ean; senior emakumezko taldean, 1993a baino lehen jaiotako neskek dute aukera parte hartzeko eta ekainaren 23 eta 26an 19:45ean bilduko dira eta senior gizonezkoak, 1991a baino lehen jaiotakoak, ekainak 25 19:45ean.

Hitzordu guztiak Michelineko edo Kirol guneko futbol zelaietan izango dira. •

Lasarte-Oriako 25 lagunek parte hartuko dute Quebrantahuesos lasterketan

Bihar, ekainak 20, egingo da Quebrantahuesos txirindulari proba ezaguna, eta Lasarte-Oriako 25 lagunek eman dute izena milaka zikloturista bilduten dituen lasterketan parte hartzeko.

Ez da erraza izaten Quebrantahuesos lasterketarako plaza lortzea. Milaka zikloturistek nahi izan dute bertan izan, baina ez da gogortzeko tokirik izatean. Lau hilabete lehenago hasi beharra dago plaza lortzeko ahaleginean. Aurten, herriko 25 lagunek

lortu dute irteeran egoteko txartela.

Prestakuntza

Ondo prestatuta joan behar da 205 kilometro eta lau mendate tartean dituen lasterketara. Prestakuntza fisiko egokia egitea komeni da proba ondo bukatzeko.

Sabiñanogotik ateratzen da lasterketa, eta Frantziako lurretan sartu ondoren, Sabiñanogotik bukatu. Lasterketa gogorra da, eta parte hartzaileak leher eginda iritsi ohi dira. •



Arg: www.quebrantahuesos.com

Kiroletako oharrak

Squashko afaria

Squashko txapelketan parte hartu dutenek afaria egingo dute gaur, ekainaren 19an.

Iluntzeko 20:30etan kiroldegia aurrean egin dute hitzordua.

Joateko interesa duenak edo informazio gehiago nahiz izan zezake, Alberto Udaberi deitu behar zaio, bera baita arduraduna.

Txapelketa igerilekuan

Igeri txapelketa dela eta Udal igerilekua datorren larunbatean, ekainaren 20an, goizeko 09:00etatik 13:00etara itxita egongo da erabiltzaileentzako.

Udal Kirol Instalazioetako Abonatuak Andoain, Usurbilgo eta Urnieta Igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute. Kiroldegia horiekin harremanetan jartzeko hurrengo zebakietara

deitu Andoain 943300147, Usurbil 943372498 eta Urnieta 943008328.

Udako Ordelegia

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuko kirol guneek udako ordelegia izango dute uztailatik aurrera.

Honela, kiroldegia astean zehar, goizez 7:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia, baina igerilekua eguerdian 12:30ean itxiko da eta guztiak 21:30ean.

Kirol gunearen ordelegia, astean zehar 10:00etatik 12:30etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Larunbatetan kirol instalakuntzak 9:00etatik 13:00etara egongo dira irekiak.

Egunero

Erakusketa

MARIAN IBARGOEN herritararen margoak ikusgai. Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteko pintura eskolako ikaslea da Marian. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan.



Erakusketa

MARGOEN ERAKUSKETA Jose Manuel Monjeren ikasleen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Igandea 21

Meza berezia

DONOSTI ERESKI GREGORIONISTA TALDEAK hartuko du parte mezetan San Pedro parrokia- ren eguna dela eta. Ondoren,



Dantza emanaldia igandean

Urtero bezala, San Pedro jaiak direla eta, Erketz dantza taldeak emanaldia eskainiko du igandean.

IGANDEAN KULTURETXEAN
19:00ETAN

14:00etan bazkaria izango dute Goiegin.

Jaialdia

OKUPAZIOZKO TERAPIA ARETOAN egoitzeko aiton-amonen eta Eguneko Zentroko erabiltzaileen eskulanak ikusgai Familien Igo festa. Atsobakar zaharren egoitzan, 16:00etan.

Jaialdia

SENIDEEI HARRERA goxoa egingo zaie, aurten ospatuko den Familien Lehenengo festan. Atsobakar zaharren egoitzan, 16:00etan.

Jaialdia

MISS ETA MISTER ATSOBAKAR aukeratzeko ekitaldia egingo da Familien Igo festan. Atsobakar zaharren egoitzan, 16:30ean.

Jaialdia

MERIENDA goxo bat dastatzeko aukera izango da Familien Igo festan. Atsobakar zaharren egoitzan, 17:30ean.

Jaialdia

MUSIKA SAIOA Familien Igo festan. Atsobakar zaharren egoitzan, 18:00etan.

Asteartea, 23

Dantza

SAN JUAN SUA, ZORTZIKOA ETA SOKA-DANTZA dantzatzeko dira San Juan egunaren bezperan. Udaletxean hasi eta gero Andatza plazara, 21:30ean.



Oharrak

Txakurra galdu

Astelehenean txakurra galdu zen Kotxeras-kaskarro eremuan. Setter ingeles arra da, zuri-laranja kolorekoa eta txipa eta tatuai ditu. Norbait ikusi edo aurkitu badu, mesedez dei dezala zerbaki honetara, 605 752 332.

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta!

Marrazki eta pintura ikasturte bukaera

Lasarte-Oria bizilagunen elkarteko Marrazki eta pintura ikastaroa ekainaren 20an bukatzen dela jakin arazten da.

Danborrada entseguak

Danborrada entseguak hasi dira. Astelehena eta asteazkenetan izango dira Sasoteko ikastetxeko gimnasioan, 18:30ean haurrak eta 20:00etatik aurrera helduak. Garaz iristea eta entseguetara joatea erregutzen da. Entsegu kopurua kontuan izango da. Honetaz gain, ekainaren 24ean helduek ez dute entseguerik izango eta Blas de Lezoko lokalera joan beharko dute 19:00etatik 20:00etara jantziaren bila.

Zabaletako zozketa

Zabaleta Auzolanek Goiegi jatetxean zozketatzen zuen 4 pertsonentzako bazkaria edo afora 68065 zerbakiari egokitu zaio. Zerbakia duen pertsonak auzoko batzordeko kideekin harremanetan jarzea besterik ez du.

Sorgin-dantzako entsaioak

San Pedro jaietan dantzatzen den Sorgin-Dantzan ateratzeko entsaioak antolatu ditu Ttakunek. Entsaio hauek Landaberri BHI ikastetxean izango dira ekaineko asteare eta ostegunetan arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara.

Jaietako haurren bazkaria

Ekainaren 28an, urtero bezala, Ttakunek haurren koadrilentzako festa mundiala antolatu du. Eguerdiko 13:30ean kalejira Zumabururik Atsobakarrera, bertan bazkaldu eta gero ur jolasak eta busti blai jolasa. Bazkarirako izena eman behar da ikastolan bertan edo Ttakunen.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Eskutitzak

Yanelle bere etxera itzuli da

Gure herrian ia zazpi hilabete pasa ondoren, gaur goizean Yanelle bere familiarekin, Beninera, bueltatu da.

Bere herrian sendatu ezinik, azaroaren 27an etorri zen TDH-Gizakien Lurra fundazioaren eskutik ankilosi maxilofazial patologiarekin. Ebakuntza eta geroko errehabilitazioa ondo burutu eta helburua lortuta etxera joan da.

Familia, auzoko, gure eta gure alaben lagunak, lagun-tza-familia, AMALURko lagunak, Pirritx, Porrotx, Marimotots eta taldekideak, komunikabideak, herriko haur, heldu eta gazteak... asko izan zarete beratz galdetu, kezkatu eta gure artean integratuta sentitzea lortu duzuenak. Yanellek horri heldu eta pozik igaro ditu hemen emandako hilabe-

teak, hainbat ekintzetan parte hartuz: Santa Ageda, KORRIKA, Azkorteke erromerian...

Bere maletan 20 kilo gauza eraman ditu; bere bihotzean ordea, sendagairik onena: Lasarte-Oriatarren maitasuna.

Ez Yanellek ez guk ez dugu inoiz ahaztuko.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez.

**Edu, Isa, Maider eta Ane
Yanelle harrera familia**

Udaberriko lora usaina!!

Udaberria loratu da, betirako negurik ez baita sortu, eta loreek badutelako bizi nahia atera dira milaka lore hormigoiaren zirrikietatik. Gutxi zuten esperoko pareten artean irtingo zenik

indarrez gainezka lora gorria. Sustrai sakonak dituen seinale! zuztarra tinko goruntz eta soilik lora gorria ez dela erakutsi du borroerengan sortu duen ezin irentsiak. Ez da neozko argi bat diskoteka ilun batean ez eta tabernatik zintzilik bakarturik dagoen kartel deigarria. Milaka aurpegi alaitu dituen lorea ernatu da laino ilun eta potoloak soilik eskaintzen diguten ur-belzetako piztien jasan ezintasunaren begiradapean. Lapurtu eta lapurtu ahots askatzaileak, ezkutatu dituzte zerbaki ofizialeatik, tertulianoen matematika txatxuetatik eta herriaren begietatik "el corte ingleseko" beherapenak baliran %50a. Baina batzuk lo hartu orduko begien bistan izango dituzte benetazko zenbakiak, hau miña, ezin lo txarra baretu. Nire ustez sikoanalista, sikologo edo sikiatra gutxitxo dago munduan estatu ez demokratiko horretako agintarien nahi,

gogo eta ezinaz aztertze buruhezurrak ireki eta barregu mamia (baldin bada) orekan ipintzeko.

Baina lorak ere desagertu nahi dituzte ANTZA, hilerrietara eraman edo bertan zenduak izan diren beste lora batzuekin elkartzeraman. Non den galdezka mila aho arnas estuka, ezarria urruturik, baina ANTZA badakienak non dagoen lorategiko lora eder hori isilik da. Isilik, lorategia iluntzen duten belar txarren moduan. Garai batean nola ohikatzen zuten? Gogoan duzue? "LIBERTAD!" edo "BASTA YA!". Eta orain ixilik. Belar txar madarikatuak!. Espaloi gaineko zakur zirina ere kondenatu behar den garai hauetan ez da inor agertu kondenatua hitzarekin aurpegi serioz eta alderdiaren ikurra daraman mikroaren atzean, kazetari haragi usteldu jaleen aurrean. Nork zioen? "O balas o votos".

Ekhiñe Sanchez

Okendo plaza eta markako arropak bertsopaper lehiaketako izarrak

Banatu dituzte XVI. bertsopaper lehiaketako sariak. Ehun lan baino gehiago jaso dituzte antolatzaileek.

MARIA AGIRRE

Joan den astelehenean banatu zituzten aurtengo bertsopaper lehiaketako sariak. Kultur etxean egindako ekitaldian, Landaberriko eta Sasotako hainbat ikasle elkartu ziren. Sari banaketa ekitaldian ere bertsopak izan ziren nagusi. Ane Labaka eta Beñat Iguaran aritu ziren bertsotan, aurkezle eta antzezle lanetan, berriz, Amaia Amiano eta Enara Ieregi. Antzezleak gai-jartzaile aritu ziren, eta Anek zein Beñatek bertsosorta eskaini zieten ekitaldira joandako gaztetxoek. Giro ona izan zen, eta ez ziren Okendo plazaren inguruko bertsopak falta izan. Ttakun elkarteko Edu Galarrik, eta Lasarte-Oriako Euskara Batzordeko buruak, Ricardo Ortégak parte hartu zuten XVI. bertsopaper lehiaketako sari banaketan. Epai-mahaikideak, berriz, Lasarte-Oriako bertsoskola-kideak izan dira. Irabazleen zerrenda honako

hau da: lehen hezkuntzako sarietara dagokionez, aipamena honako hauek jaso zuten: Landaberriko ikastolako Leire Ruizek eta Julene Illarramendi, eta Sasotako ikastetxeko Paula Carballo eta Alicia Hernandezek. Lehenengo saria, ordea, Landaberriko Sara Pavo Beldarrainek, eta Sasotako Sara Araneu, Leire Tejedor, Cristina Rebollo eta Leire Valdiviak jaso zuten. Bigarren hezkuntzako aipamena, berriz, Landaberriko Lierni Arozenak eskuratu zuen, eta lehenengo saria, Maider Galardik.

Antolatzaileak pozik

Antolatzaileak pozik daude, ehun lan baino gehiago jaso dituzte-eta. Kopurua bikaina dela uste dute. Okendo plaza, Internet, udako oporraldia eta markako arropak izan dira aurtengo bertsopaper lehiaketako gaiak. Bereziki, Okendo plaza eta markako arropen gaia aukeratu dituzte parte-hartzaileak. •



Goiko argazkian sarituak. Behean, joan den astelehenean egindako ekitaldiaren une bat.

SASOETA-ZUMABURU

Gaia: Interneten zein guneetan nabigatzen dut

Asko gustatzen zaigu Interneten sartu Gauza interesgarri ahal dira bilatu Lagunekin hitzeging messengerra hartu ADSLarekin denak nabigatu

6. mailako ikasleak

LANDABERRI LH

Gaia: Okendo plaza

Bertan ibiltzen gara kuadrillan beti arratsalde pasa herriko plazatik pasatzen da San Pedrotako konpartsa Erketz, Alboka eta Amalur ta hoberena Jon Lasa munduko tokirik ederrena hori da herriko plaza

Egunero joaten ginen gu arratsean lagunekin globo gerrak egiten genitun iturriko urarekin

Frontisera ibiltzen ginen baita ere patinekin gaur agur esan behar diogu tristura handiarekin

Sara Pavo Beldarrain

LANDABERRI BHI

Gaia: Etxean esan didate markako arropa erosteari uzteko eta merkadillora joateko

Amarekin eskutikan noa oraintxe merkadillora, erosteko premia nolako bi galtza ta alkandora.

Amatxo prezioan kontu honek egin du erabat zora, gure etxean diruak behera ta krisiak egin du gora

Ni leno nintzen bi astean behin Urbilera joaten zena, erosten nuen momentu hortan modan zegoen azkena. Denda guztietan sartzen nintzen hartzeko bertako dena, krisia baino aurreko neska ez da orain ni naizena.

Azokako postutatik goaz eskutik ni eta ama,

inortxok ezagutu nazan hartu dut nik kriston lana. Arropa zaharrak eta kapela burua estaltzen didana, lagunak ez nazatela ikusi hortxe da nahi dudana.

Arropa bilatu postuetatik alde batetik bestera, jantzi multzotan beida gabiltza txiro batzuen antzera. Nire lagunak hurbildu dira oraintxe nire aldera. abiada batean nihoa merkadilolitik etxera.

Maider Galardi

San Pedro jaiak 2009

Zikiro afaria 28an



txartelak salgai gaurtik aurrera Jalgin eta Ttakunen 18 euro

Bertsosaioa 29an

txartelak kulturetxean salgai (5 euro)

